



# eskolarteko orientazio IX LEHIAKETA'25 GIPUZKOA

## ORIENTAZIO LEHIAKETA

### PARTE-HARTZE OINARRIAK

**1- Aurkezpena:** Gipuzkoako Mendizale Federazioak eta Gipuzkoako Orientazio Taldeak Gipuzkoako Eskolarteko IX Orientazioko Lehiaketa'25 antolatu dute. Lau probaz osatuta dago. Ez da podiumik egongo (1., 2., 3. eta abar).

**2- Egunak eta lekuak:**

- -Martxoaren 16an Oiartzun. Urkabe mendian.
- -Ekainaren 7an Hondarribia. Urbanoa.
- -Urriaren 12a Lizarrusti. Mendia.
- -Azaroaren 16an Hernani. Urbanoa.

**3- Partaideak eta mailak:** Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztiek har dezakete parte. Maila guztiak kadetetaraino, hau da, 16 urtera arte (barne).

**4- Izen-ematea:** probaren aurreko asteartea baino lehen internet bidez elkarte antolatzailean: GOT Gipuzkoako Orientazio Taldea. [www.GOTorientazioa.org](http://www.GOTorientazioa.org). 3 € bakarkako partaideko eta 5 € familiako. Izen-emateko orria betetzea derrigorrezkoa da. Ez bidali Federaziora.

- ✓ Izen-emateak honakoak jasotzeko eskubidea ematen du: mapa 1 partaideko edo familiako, hornidura (Eskaintzen bada).

**5- Harrera:** Harrera eta irteera lekua astebete lehenago [www.GOTorientazioa.org](http://www.GOTorientazioa.org) webgunean jakinaraziko da.

Atera baino lehen partaide guztiek beren parte-hartzea harrera mahaian baieztatu beharko dute. Bertan jasoko dute partehartzaileek beharko duten matxarda edo pintza eta laguntzaileak ere erregistratuko dira. Amaitzean, derrigorrezkoa izango da pintza itzultzea eta proba amaitu dela jakinaraztea.



# GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

*Eskola Mendi \* Montañismo Escolar*



**6- Ordutegia:** irteerak piskanaka emango dira, minutuero, goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean. 14:00etan itxiko da ibilbidea.

**7- Froga sistema eta helburuak:** eskola kiroleko proban 3 ibilbideetako bat aukeratu ahal izango da.

- ✓ Ibilbide horia.
- ✓ Ibilbide laranja.
- ✓ Ibilbide gorria.

Bakarka, taldean edo familian parte hartu ahal izango da. Mendian zehar kokatuko diren balizak bilatu beharko dituzte partaideek, nagusiki mapaz lagunduta eta iparorratzaz ere, edukiz gero. Antolatzaileek ibilbidean zehar jarritako ordenean bilatu beharko dira balizak.

- ✓ Helburuak: kirol orientazioa ezagutzea, praktikarekin ondo pasatzea eta mendiko balizak bilatzea.

**8- Material gomendagarria:** mendian ibiltzeko jantzi egokiak. Galtza motzak saihestu, sastrakak eta adarrak egon bait daitezke. Zola takeatua duten oinetakoak eramatea gomendatzen da (ez da beharrezkoa). Iparorratza eramatea gomendagarria da (baina, ez edukitzekotan, antolatzaileek maileguan utziko dituzte iparorratzak bukatu arte). Maskarilla eta norbanako gel hidroalkolikoa.

**9- Lehen sorospenak:** sorospen zerbitzua izango da.

**10- Zaborra:** parte-hartzaileek sortzen duten zaborra beraiek jaso beharko dute beren motxilan edo antolatzaileek jarritako zaborrontzietan.

**11- Joan-etorria:** berebil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasuneko, trafikozkoa, aparkalekukoa, CO<sup>2</sup> igorpenak, etab. Garraio kolektiboa erabili. **TALDEAN GOAZ!**

**12- Ezustekoak:** ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.

**13- Argazkiak eta bideoa:** jarduera publikoak izanik, argazkiak eta bideo irudiak hartuko dira. Iru-diok seguraski, bai prentsan bai Federazioaren webgunean eta bai elkarte antolatzailearenean argitaratuko dira.

**15- Oharra:** probetan izen-emateak antolakuntzako baldintzak onartzea dakar berarekin.

## IZEN-EMATEKO BOLETINA:

Web honetan: [www.GOTorientazioa.org](http://www.GOTorientazioa.org)